

**Miriam Isasik** (Vitoria-Gasteiz, 1981) banku, gasolindegi eta museoetan babesgabe aurkitu zituen entxufetatik jaso zuen *Energía robada* laneko neoia elikatzen duen elektrizitatea. Enpresa handi horiek ordaindutako elektrizitatea hartzean, artistak etekina ateratzen dio enpresek besteen lanari ateratzen dioten gainbalioari.

Lehen plano garbia eta enkoadraketak mozten dituen adarrak ikusita, *Arizona* lanak gutxiago zor dio paisaiaren tradizio piktorikoari, argazkigintzari baino, zehazki, postal turistikokoetako argazkigintzari. Lehen planoko landareen xehetasun zorrotza ikuslearen begiradan jarriz, **Ibai Leónek** (Bermeo, 1980) irudikatutakoak duen izaera exotikoa nabarmendu nahi du.

**Karlos Martinez B-ek** (Bilbo, 1982) "proiektatutako eskultura" bat aurkezten du, *Oblation*. Zabal daitekeen argazki bat erabili beharrean, artistak argitan gehiegi eduki den argazki-negatibo analogiko bat hartzen du –hau da, opakoa –, eta labanaz mozten du. Oblazioaren bidez, uko egiten zaio irudiari, argi-proiektzioaren egintza bera gure begirada aurrean jartzeko.

Orain, **Andrea Suárezen** (Avilés, Asturias, 1980) *Mortaja para kit de novia* lanak erakartzen du gure begirada. Inguruan, atzean, fokutik pixka bat aterata dagoen paisaia bat igartzen dugu, eta, lehen planoan, erdian, itxura misterioitsu bat. Osagai arrotz horrek sorrarazten ditu galdera guztiak, eta inguruan duen paisaiak areago nabarmendu baizik ez du egiten, laukian sartu eta erdian jarri besterik ez.

## HURRENGO ERAKUSKETA

### Memoria de la diversidad (expediente I/B)

2014ko uztailaren 17tik urriaren 12ra

#### rekalde

Alameda Recalde, 30 | 48009 Bilbao  
Tel. +34 94 406 85 32  
www.salarekalde.bizkaia.net

#### Ordutegia

Asteartetik larunbatera: 10 - 14 eta 17 - 20:30 h  
Igande eta jai egunetan: 10 - 14  
Astelehenetan itxita

#### Horario

Martes a sábado: 10 - 14 y 17 - 20:30 h  
Domingos y festivos: 10 - 14 h  
Lunes cerrado

#### Opening hours

Tuesday to Saturday: 10 - 14 and 17 - 20:30 h  
Sundays and holidays: 10 - 14 h  
Monday closed

sarrera doan | entrada libre | admission free



# ERTIBIL BIZKAIA

2014ko maiatzaren 15etik uztailaren 16ra

- Bizkaiko Foru Aldundiak antolatutako ERTIBIL BIZKAIA Arte Plastikoen Erakusketa Ibiltaria Bilbotik abiatuko da, eta Leioa, Gernika-Lumo, Lekeitio, Basauri, Barakaldo, Elorrio eta Vitoria-Gasteiztik igaro ondoren, Sestaon bukatuko da, 2015eko urtarrilaren 17an.
- Hona hemen ERTIBIL BIZKAIA XXXII. edizioan saria jaso duten artistak: María Azcona, Kristina Losa eta Oihana Torre.
- 1983an lehen edizioa egin zenetik, ERTIBIL erakusketaren helburu nagusia beti izan da Bizkaian sormen-lana egiten duten eta agertzen ari diren artista berriak bultzatzea eta sustatzea.
- Edizio honetara 141 obra aurkeztu dira, 35 urtetik beherako 104 artistak eginak. Espezialitate guztietan aurkeztu diren obren artean, 17 lan hautatu dira, ERTIBIL BIZKAIA 2014 erakusketa eratzeko. Honako hauek dira epaimahaia osatu duten profesionalak: Petra Joos (Guggenheim Bilbao Museoko Jardueren zuzendaria), Ana Salaverria (Donostiako Koldo Mitxelena Erakusketa Aretoko zuzendaria), Jaime Cuenca (arte-kritikaria eta Deustuko Unibertsitateko irakaslea) eta Miren Arenzana eta Kepa Garraza artistak.
- Lehiaketako irabazleek sari hauek jasoko dituzte: 5.000 euro lehen sariak, 4.000 bigarrenak eta 3.000 euro hirugarrenak. Hautatutako gainerako artistek 2.000 euro eskuratuko dituzte.

rekalde



rekalde Alda. Recalde, 30 - 48009 Bilbao - Tfno. +34 94 4068532 - www.salarekalde.bizkaia.net

## ERAKUSKETA

Erakusketako katalogorako Jaime Cuencak idatzitako testuen zatiak.

**María Azconak** (Iruñea, 1991) Everest mendiaren garaierari egiten dio aipamena *8848 metros* izeneko lanean, eta ekialdeko kutsu nabaria du paisaia tratatzeko erakusten duen eran. Kolore grisak eta zuriak mailakatuz azaltzen du mendigunearen erliebea, eta soslaia, berriz, marra arin eta zehatz batez egiten du. Ez dago itzalik, ekialdeko margolaritzan bezala, eta, testuinguru honetan, ezaugarri horrek irrealtasunaren ideia ematen digu, ametsarena ia. Ideia horixe nabarmentzen du irudien –denden eta banderatxoen– eskalak, izugarri handiak baitira inguruan duten agertokiarekin erkatuta. Proportzio ezak umore-kutsua sortzen du, eskalatzaileak jostailuzko irudiak edo komiki-banda bateko protagonistak balira bezala.

Objektu *zehatz* bat kontuan izateak esan nahi du objektu hori berez aintzat hartzea, eta zein berezitasun duen bahetzea. Nolabait esan liteke **Kristina Losak** (Vitoria-Gasteiz, 1988) isilean gordetzen dituela bereizgarri horiek irudikatzen dituen objektuetan. *Concrete* pieza eratzten duten bariazio arkitektonikoetan eta landare-bariazioetan, xehetasunen absentzia nagusitzen da. Irudikatze duen modu horrek urrunago du irudi mimetikoa, ikonoa edo ikurra baino. Estilizazio-gradu gutxi batzuk gaineratu, eta landareak *kamon* bilakatuko lirarteke, hau da, Japonia feudaleko ikur horiek, gaur egungo enpresa-logoen aurrekaririk argienak. Izan ere, badirudi hautatutako euskarriaren formak eta jarrerak berak nolabait indartu nahi dutela arte grafikoetako publikitateko mintzaira-rekin duten halako lotura: eraikinen fatxadetan ekitaldi handiak iragartzen dituzten kartel bertikalak etortzen zaizkigu gogora ezinbestez.

**Oihana Torrek** (Bilbo, 1981) perspektibaren efektu dinamikoa erabiltzen du argazkigintzan. *Kubo* izenburupean aurkezten dituen hiru irudiek basoa dute agertoki, eta mugimendu kolektibo bat kokatzen dute bertan. Zuhaitzen enborren eta adarren artean, kubo zurien multzo batzuk ikus ditzakegu. Hain zuzen, kuboek perspektiban duten antolaera zaindua da mugikortasuneko zirrara bizi hori sortzen duena. Ezker-eskuin, bi puntu imajinariotan bat egiten duten ikusezinezko lerro zorrotzetan antolatuta, badirudi kuboak irudian baneratzten direla edo bertatik alde egiten dutela, abiada bizian. Lege geometriko horiek zehatz ulertzeaz gain, jakinduria handia izan behar da eszenografiatz, argiei ahalik eta probetxurik handiena ateratzeko.

**Julen Alberdiren** (Iruñea, 1991) *Bestia Dacre I (Checkpoint)* margolanean, amesgaiztoko giro zitala sumatzen da. Aire zabaleko igerilekua, udako aisialdiaren osagai ikonokoa, ekintza ilun baten agertokia da hemen. Lorategia desertuak inguratzen duen zerrenda ñimiño bat besterik ez da. Pareta, babes eskas bat ezin neurtuzko zerumugarren aurrean. Eta badirudi behi-irudi bitxiak araua ezartzen duela urpekariek ondoz ondoko murgilaldiak egiteko.

*Degeneración en generación* argazki-triptikoan, **Mikel Azkorrak** (Sondika, 1995) etxebizitzari atxikitzen dio begia, ustez higiezin burbuila lehertu eta sei urte igarota, biztanleria-maila askorentzat eskuraezina baita oraindik. Ondoz ondoko hiru belaunaldiren habitata izan zitekeena erkatzen du bere argazkietan: gainbehera doan eta gero eta eze-gonkorragoa eta eskasagoa den bizitza-ingurunea.

**inToYourMind** taldearen *Memoria Pantalla* proposamenean, artisautzako ehunduraren apologia bat ikus dezakegu, *minimal art-ek* bultzatzen zuen estetika industrial hutsaren aurrez aurre jarria. Botila bakoitza desberdina da besteekin erkatuta: moldeatzeko prozesuan, akatsak ez dira ezkututzen, eta piezak ez dira bazter uzten. Hemen, multimedia

testuinguru hiperteknikatuaren erregistro bat gainjartzen zaio artisautzaren gorazarreari: proiektzioa, hau da, gure garaietako habitata. Gaur egun, dena bihur daiteke pantaila.

**Jon Ander García** (Barakaldo, 1989) pintura sintetikoaren ehundura artifiziala eta pastel tonuen eta tonu azidoen artean dauden koloreak hautatu ditu *Lumobeacon* margolarerako. *Kitsch* efektua sortzen dute, instant batean sprayz margotzen diren hondartza-paisaia horietatik oso urruti ez dagoena. Hala ere, piezaren antolaeran dagoen zerbaitek dei egin nahi dio ehiza-garaikurraren, animalia totemikoaren, talismanaren aspaldiko duintasunari. Ez dakigu zer egin, zientzia fikziozko utopia baten agertoki futuristan kokatu, edo garai hauetako neurria ematen duen errituzko maskaratzat hartu.

**Leticia Gaspar-en** (Bilbo, 1982) *Sir Capital General Store* lanean, publikitateko diseinu grafikoak dituen zehaztasun eta argitasunaren aurrez aurre, formak beren mugez ahazten dira, eta kolorea gogo gabe erortzen da. Ez dugu erakusleihen sedukzioa inon aurkitzen. Hemen, gainbehera-sentsazio ahul bat besterik ez dago, eta eraginkortasunez adierazten da, gehiegikeriarik gabe: badirudi neoizko hodien aldizkako burrunba entzun daitekeela.

Material merkeak, erraz eskuratzeko modukoak erabiltzen ditu **Álvaro Gilek** (Corella, Nafarroa, 1986) *Brikoexplosion* lanean. Kristal-formen pilo bat eratu beharrean, ondo egindako brikolaje-lan bat lortzen du horrela, eta tituluan bertan indartzen du ideia hori. Emaitzak kontraste ezin nabarmenagoa sortzen du mahaiko forma organikoekin eta landare-itxurako formekin. Izan ere, badirudi lotzeko uhal sendo bat behar dela mahaiaik eta kristalek elkar uxatu ez dezaten, eta airean atera ez daitezen kontrako norabideetan. Uhalaren nabarmentasunak artistaren keinua azpimarratzen du: desberdinak diren osagaiak biltzea.

**Eduardo Gonzálezek** (Sestao, 1980) ikono zaharrek adierazteko duten indarra lortzen du *Espacios Entre* izeneko argazkietan. Bertan, agerpen misteriotso batek begirada itzultzen digu sakratutasunaren atzealde monokromotik. Ez dio axola handirik taula hauek begirik ez izateak, efektua ez baitago jarrera figuratibo jakin baten mende, gaiaren eta kristaldutako testuinguruaren arteko harreman topologikoaren mende baizik.

**Gontzal Gutiérrezek** (Miranda de Ebro, Burgos, 1980) aurkezten duen barnealdea ez da Vermeer-ek aterpe eroso gisa margotu zuen hura; ez da gotorleku seguru bat, kanpoaldetik nola menderatu prestatu bitartean begiradak ikuskatzen duena. Hemengo barrualdea, *2014*, gurea da, eta ez du erosotasunik ez segurtasunik eskaintzen. Barrualdean genuen uste osoa galdu dugu, kanpoaldea arautzen duten dinamika suntsitzaile berberak zeharkatzen dutelako. Ordena izan zen lekuan, gainbehera dago: lehen habitat bat izan zena, hondakindegia bat da gaur.

**Eduardo Hurtadok** (Valladolid, 1986) zabalkunde zientifikoari dagokion formatu bat hartzen du abiaburutzat, azaleko beira-arasa, eta azpikoz gora jartzen du bere ohiko zeregina. Kristal baten azpian antolatutako irudien eta testuen multzoak eskuragarri jarri behar ditu jakintza zientifikoko eduki batzuk. Artelan honetan, berriz, testuek bestelakorik iradokitzen dute: gizakiaren sormen imajinario eta plastikoez arduratzeko zientziak duen ezintasuna.

*Invasión Lumínica* saileko serigrafian, uhinen, sorten edo izpien sekuentziek paraleloan egiten dute aurrera, abiadura hutsean adierazi nahian. **Zalao Ipiñak** (Bilbo, 1986) lortu nahi izan duen efektua zentzu handiz nabarmendu du hemen, euskarri garden bat erabiliz. Geldi dauden formak gainjartzen ditu, argiaren ezin sumatuzko bidaia zorbiagarria iradoki nahian, eta efektu harmoniatsua eta barea lortzen du.